



KARLOS
CID ABASOLO

keinu konplizeak

Keinu konplizeak

KARLOS CID ABASOLO

 **Susa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2018 Karlos Cid Abasolo

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2018ko apirila

Edizio hau: 2018ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Abuelo Dámaso zenari,
maite ninduelako,
maite nuelako,
maite dudalako
eta,
erdalduna bazen ere,
euskararekin maitemintzeko bidea
erakutsi zidalako.

LOKAMUTSA

TUNELA

Bederatziak jo ditu nasak
lainoz estaltzen dut neure izena
bi argi daude
behar zaitut
behar zaitut.

Zortziak jo ditu zure irudiak
harri-kartoa nonahi
hortzetarainoko porlana
eta erlojuari begira nago ni.

Zazpiak jotzen ditut.

Apokalipsiaren zazpi maldizkoak.

COMBOIOS DE PORTUGAL (I)

Sintratik Lisboaara doan trenean
mozkorrak irri dagi mintzo zaigularik
(ezer gutxi dut ulertzen)
aurpegi kamuts, intelektual,
serio, berdintsu
garen besteoi.

Erruki dugu.

Gaixoa, dio berekiko
nire ezkerrean bere eserlekuaz
eta nirearen erdiaz jabetu den
andre permanentedunak.

Irri eta irri dagi (mozkorrak),
eta kantari dabil,
eta badu txartela.

Mozkorrek
beti izaten dute txartela.

COMBOIOS DE PORTUGAL (II)

Trenak ez du oraino Lisboa behatzen.
Letargia garizuma baino infinituagoa da.
Dagoeneko inork ez dio mozkorrari erreparatzen.
Erretzen ari da
silueta bidegabeak osatuz,
lokamuts lizunen artean
zigarroaren iragazkia musukatuz,
eta
irri dagi berriro
Lisboa hurbiltzen ari baita
erremediorik gabe,
eta saihetsezina den orori
aurpegi kamutsek baino ez baitiote
aurpegi ematen.

Butaka bakarreko esperpentoak
txartela du ezinbesteko.

ZIPRIZTINA ETA KEINUA

Zipriztin bat ahurrean hartu
eta uhin nabar batek ostu zidan
uholdeka.

Keinu bat musuan ezarri
eta baga koloreaniztunak lapurtu zidan
ttanttaka.

Zipriztina eta keinua biltzen diren
egun hipotetiko
gertaezinean
ez iezadazue dei.

Erantzungailu automatikoaren
ahots ez-eneak dizue
hilobitik
ihardetsiko.

DARDARKA

Dardarka ari haiz, eskimalen errege,
espantuzko harkaitz izoztutik ikusten haut
negarrontzi baten lemazain, eskimal.

Urtaroen izenak apuntatu hituen kaier polarraz,
ez dagoena aurrena idazten duena baita asmatzaile,
ez dagoena idaztearen abiadan funtsatzen baita
edozein asmakari.

Apuntatze hutsetik sortuko balitz bederen
irrikatzen dena, eskimal.

Baina ez.

Dardara betiereko kondena zaik suertatu,
jaiotzetiko patu saihetsezin,
eskimal.

ALTXORRA

Noraezean erratu nintzen, itsasorrazturik,
zure ezpainenan
orrazi-irlako mapa neramala.

Behea jo zuen ontziak,
kirrika egin zuen aingurak,
neure zurezko hanka,
neure altzairuzko kakoa,
neure loro eleanitza
eman nizkien dohaintza gisa
milaka museori.

Eskuak hondarrean
kaxa bat susmatu-haztatu-ukitu zuen,
kizkur bati atxikia,
zeina baita
orrazi ezkutatuaren aztarna
eta
edozein maparen
funtsa.

BABELGO NOBLEZIA

Printzea ziriliko izatera jolastu zen,
metodikoki alfabetoak prozesatu,
fonema hemen, morfema auskalo non,
azentuaren errege,
enperadore janbiko,
izenordain deritzon goroldioa daukana
itsasorratz bakar.

Hatsean zen Hitza,
zezeldu zuen museotik konfiskatutako
mitra janzteaz batera.

Ametsetan
legenardun bat irten zitzaion bidera.
Maite haut, esan zion legenardunak.

Itzartu zenean,
hitz hori bilatu zuen
munduko hiztegi guztietan.

Alferrik.

GORA ERREPUBLIKA

Saldu zaituen printzea
sala ezazu
zeureak egin baino lehen.

Ez dezatela pentsa
lekaio zurien beldur zarela,
koroaren beldur,
sagarraren beldur,
makilaren beldur.

Ez dut onartuko
kanoikada bat bezala
jasotzen duzun agindu bakoitzaren gibelean
aliteraziorik bila dezazun.

Alferrik da, dizute, oi, xuxurlatuko.
Goseak nago, alferrik ere.

Ez du merezi, akabo,
dorreaz harantzago

teleskopioa jaurtitzea,
han ispilu bat baino ez baitago,
dena eta izan beharko lukeena
islatzen dituen.

Poetarik gabeko printzerria.

Printzerik gabeko poeterrria.

MAITASUNA ETA HERESIA

Gupidarik gabe
maite zaitut
heretikoen dorreko zaindari
nauzun
honek.

LEHORRAREN GARAIPENA

Tirabira egin du txalupak
hankaz gorako itsasoan.

Bere buruaz beste egin du lemazainak,
mututzea beste erremediorik
ez zuelako.

Ahoa josi diote batak besteari
ababorrak eta istriborrak.

Begiak itxi dizkiote elkarri
txopak eta brankak.

Eta bisiguak zientoka Getarian
parritxeetako jaterriletan.

ASKO DA ENDROKERIK

Hemendik aldarrikatu nahi dut
gogotik gorputzera daridan
neure izaera berria:
moilako zamaketariarena.

Egoera berri hau
eutanasiatik gertu dago,
zaldiak nahita egindako mugimendua,
bi lauki aurrera,
bat eskuinera
(edo ezkerrera,
hona hemen
askatasunaren muga)
xake-mateari harakiri traza
hartzen hasten zaionean
aduanaren kontrolaren aurrean
luzatutako beso haiei
borondatez
uko egitean.

ALDERRAI

Ke eta kartaboizko basamortua
pilula-ametsetan datzala,
horra hor,
kalez kaleko ibilaldi etsian
gau mamuak,
holandar hura bezain alderrai.

Azalduko dira errauts,
zarama edo
itzal artean
plastiko, kartoi, paper xerka
agudo, goizaren beldur,
argi ezaz fidaturik.

Herenegun bi ziren, eguzkia
atzo bi milioi, dugu
gaur bilioitik gora etsai amorratu
(liparrak joan, liparrak jin,
segitzen ote du goiza gautzeak
gaua goiztea bezain korapilatsua izaten?).

Hiriak nagiak aterata
ospa eginen dute Discovery
 baten
 magalean.

Itzarri, Mikeltxo, berandu da eta.

JOSTAILU BAKAR BAT

Jostailu bakar bat saldu nuen
prezio merkean
alokatutako txori dendan
duela berrogei urte.

Harrezkero ez dut jostailu
bat bera ere saldu,
ez prezio merkean
ez garestian.

Jostailugabekoen Lurraldean bizi naiz
(harrezkero, oi, harrezkero),
jostailuturik,
saltzaileak eta salduak
bat eginda.

GEZURRAK ERAIKITZEN

Malkarrezko distantzietan,
mugen dardaran zehar,
maskara.

Soinuak bizirik atera ziren hegazkin-istriputik
(aditzera eman denez),
gaubeila amaigabe haietan
ganbara magikoan
zodiakoak eta hitz frankotiratzailleak gogoan,
biharamunean ez-ulertuak sortuz.

Keinu konplizeak, urte askotarako eta abar.

Keinuari guk irribarre.

Alferrik zodiakoak eta hitzak alegatzea,
harresirik gabeko aitormenak,
lekuko saldoen aurrean soilik eraikitako besarkada.

Iruzurra kimatu egin zen.
Maskara,
aurpegiaz ez bestelakoa.
Tramoiatzko amodioa.

MUNDUAREN ZAHARTZEA

Urdindu zaidan ilea
ezagutzen haudanetik
hona
ugari.

Urdindu zaidan ispilua
eta ez dinat ahotsik aditzen
laku arrosaz bestaldean.

Eserita nagoen aulki
gurpildun honetaz harantzago
paisaia hutsa besterik ez zegoen
eta paisaiaren hodeiertzetik
gero
eta
hurbilago
itsu bat,
kupoien merkatu beltzean
nagusi.

IGARLEA

Haizerik ez den egunean
itoko gara oleaziorik gabe
hilezkortasunari ez baitio
kristok ere erreparatzen.

MUNDUAREN ERREGEA

LITEKEEN MODU POSIBLE BAKARRA

Orekan.

Harririk eta makilarik gabe.

Zuhaitzik gabeko zuhaizti batetik,

gizakirik gabeko gizateriagandik,

ahotsik gabeko burrunbatik

eroritako egunkari hostoen babesean.

Han,

hantxe soilik,

litekeen modu posible bakarrean

egon gintezke, maitea:

trapezioan.

THE WALL

Etsi-etsian

zappingean eman ditut
mila arratsalde eta bat gehiago,
bobgeldoftu egin naiz derrepente
eta harrapatu ditut
itsas-lehorreko animalia ugari,
atuna, kasu,
katua, demagun bidenabar,
otso beltza, eperra, amuarraina,
besteak beste.

Begizkoa egin digun sorginak
iratzartzen ez gaituen bitartean
mila aldiz nahiagoko ditugu lokamutsak
ipuin harrigarri bat baino.

HISTORIAKO MUSURIK LUZEENA

(*Notorious*, 1946)

Ingrid eta Cary
elkarrengana hurbildu kaixo
elkarrengandik urrundu agur
laztan bat eta gero amildegia
hemen gelditu bi pauso harantz
balsean baileuden
begi bat begi baten barruan
ezpain bat ezpain baten hondoan
ezin hurbilurrutiago
jira-biraka
aterantz mahairantz
beti rantz
(rainoaren uko mitikoa),
izerdi patsetan ni, bustitzeke beraien ezpainak
(hain baitira haragigabeak)
neke-neke eginik
etengabe darraizkien kamerak ez baitie
atsedenerako arnasarik ematen

agortu da oasi izartsua
ahoratu dut kraska azken krispeta
musu infinituaren erreinua desagertu baino
ehun mende lehenago.

EIBAR

Itsaso du izena ene maiteak,
Enbata tabernara arratsero,
atun ederra harrapatu,
jaixetan arrantzalez jantzi,
institutuan *Kresala* irakurri,
legatza saltsan trebeki prestatu,
mikrouhin labea erabili,
sardinzarren kontrola arazo barik gainditu.

Eibarko marinela nauzue.

ELEGIA

HORTZETAKO PASTARI

Komunean, hortzak garbitu bitartean,
bihotzekoak jota hiltzea ze
irrigarri gerta daitekeen
ez zen nehor ohartu
aita nuena komunera sartu zen arte
azaroaren hogeian
ze kasualitatea
hortzak garbitzera.

Ezin heroitasunik uka
zentzeko era ponpox horri.

HAURTZAROA

Zergatik eginduz horietxetik ateragabe zigortuta
janez azuxerragaurpostre rik gabegeldituko zarazure
anaiak notahobeak ateraditugero horrelazikintzea
erebukatu zait pazientzia ez zaitut Igeldora
eramango ezkutatukodizkizut jostailuak zaude
isilik eginitzazu etxerako ari ketakolentzerok kamio ikada
batikatzekarri kodizunorkpuskatudupitxerhau hurrengoan
ganbarangiltzapetuko zaitute zahal zinenjaioko.

ONDORIO LATZAK

Oihu egin gabe gelditu ziren
ilarakoak,
eman gabe gelditu da
bart gaueko musu arrotza
gaua hustu ez zedin
akaso,
putzuz bete zedin
igual.

Eta ez zen beste hitzik ahoratu.
Mututu zen galaxia itsu hura.

Braille metodoak
parra-parra saltzen dira
harrezkero
putetxe eta taberna-zuloetan.

IRUZURRA

Gaur bakarrik egon nahi dut,
isiltasun eta agur automatikoaren artean
banatua ez izan,
neure burua besarkatu, bai,
irudi goraipatu-baina-aldi-berean-alferrikakotik
urruntzeko,
neure azala kulunkatu eta
(hozkirria!!!)
arrotza zaidan izaki batekin nahasi.

Neure imajinaren inguruan piramide
bat eraikitzea
beste desiorik ez dut.

Salbu eta antzematzen bazaitut,
gertu
ala
ez.

ZORIONTASUNA

Entxufeak jarri,
hormak zuritu,
itoginak konpondu,
kristal hautsiak aldatu,
parketa leundu,
sukaldea eta bainugela zolatu,
hemen armairua jarri,
hor ispilua,
han diseinuzko aulkia,
bai zoriontsua naizela
alajaina.

EZ DA ESPERANTZA GALDU BEHAR

Buru-hilketa (behin eta berriz)
atzeratua.

Trena etorri arte
zenbatzen hasi eta
hogeira iristen banaiz
metrobidera botako diat
—agentziak—

ene buru kalkulatzailea.

Bat, bi, hiru,

ez zetorrek oraino,

lau, bost, sei,

kezkutzen hasia nauk,

zazpi, zortzi, bederatzi,

hobe ehun arte zenbatu banu,

hamar, hamaika, hamabi,

erdu, trena, tuneleko nire azukre koxkorra,

hamahiru, hamalau, hamabost,

ene ondareak bertso-eskolarentzat,

hamasei, hamazazpi, hemezortzi,

tunelean barrena iluna jaun eta jabe,
hemeretzi, hogei,
bazetorrek argia.

Lanetik bueltan
apika.

MUNDUAREN ERREGEA

Egun bat olagarroaren bizitzan,
olagarroa ohean,
olagarroa lagunartean,
olagarroa gimnasioan,
barre degiot nik
zortzi orduz lan egin eta
eguzki printza bakar batek ere
inoiz bisitatu gabeko
ene etxe-zuloaren
egongelako
telebista
zuri-beltz
epeka erosiaren aurrean.

NOLA ALDATZEN DIREN GAUZAK

Txikitako ikaskide hura.
Hamar urte ez nekusala.
Hamar edo hamabost.
Konplexuz betea,
martin-jakintsu erremedio gabea.
Bigarren Mundu Gerra datutan.
Hitler Waterloora iritsi zeneko
taxiaren matrikula.

Lan alferra
begirada altxaturik hitzak funditzea,
barraskilo, tu-jaurtitzaille nahigabeko,
espeleologoaren omenezko oroigarri.

Bagoian da ageri
lagun duen neskari laztan eginez.

Ene ondoan eseri eta
ene eskuineko giltzurruna ukondoaz jo du
(halako hitz jarioaren ondorioak).

Ez dario lerderik,
ezta agurrik ere.

Haren begiak begiari so egiten dio.

Enperadore da
eta bagoia
haren inperio.

HERRARIK GABE ESANAK

Etxeko postontzitik argazki hura jaso eta
hara, ene sudurraren arrastorik gabeko sudurra,
hara, ene begiez bestelako begiak,
hara, ene ilearen koloretik
bostehun galaxiatara dagoen ile kolorea.

Muinak kiskaldu ditut
ezaugarri komun baten bila
hutsean ari denaren
arduragabetasunarekin.

Ez nazazu herratsutzat jo
seme ohi deitzen badiot,
sei hilabeteren aldeagatik
ohi,
lau urterengatik
seme.

ODA APALTASUNARI

Barkamenaren etorrerari itzaroteke
txu egik hire baitan oinarrituz
sortu duten mitoaren gainean,
otoi, beranduegi izan aitzin.

Heure izena madarikatzen duan egunean
sentituko haiz
jaiotza-agiria bezain libro.

ALDE TXIKIA

Hauteskundeak egin behar ditut epe laburrean zerrenda itxi bakarrari emateko boto hitz bihurtzen dudan txorakeria bakoitzean ezkutaturiko hautagai bakarrari.

Zortzietan itxiko omen da ikastetxea, balizko emaitzen abagune.

Porrot egin du inkesta enpresak, zakarrontzian dautza anabasan metaturik aurreikuspenak.

Ez naiz garaile suertatu boto baten aldeagatik.

Ondikoz.

ARKITEKTOAREN AGURRA

Gizonak leundu,
bernizatu,
alikatatu
egiten du azken telegrama posiblea,
azken mezuak, mututasun eternalaren aurrekoak,
azken musua gorde dezan,
barbiturikoaren atondo
agonikoan.

ARPOIA ESKUAN

TELEBISTARI BEGIRA (1)

Ontzi hartan zihoazenetako batzuk
uhinek irentsita dira zendu,
arroka bizardun bat zelarik
kazetari bakar.

Auto berdeak egin du eztanda
arroka bizardunik gabeko
karrika JENDEZ BETE batean.

Bizar egindako kamera,
luma,
eskuko personal computerrak
inguratuko dira
odol berdearen usnan,
handik gutxira neure gosari,
bazkari,
afari legearen lagun.

Eta orduantxe dut ulertzen
nonahitik nonbaitetik dela
eta nornahi norbait,
egia gehiago dagoela arroka hartan
makina bat lumatan baino.

TELEBISTARI BEGIRA (2)

Eta ez diot hormatua izateari beldur
berrogei hanka
hamar hanka baino gehiago zaizkidala
baldin badut
aldarrikatzen,
nahiz eta hamar horiek
edukazio oneko populuaren
ahotan
(arrazoiz,
legez,
nahigabeturiko ahotan)
egon,
beste berrogei haiek
ahantzura edota
ukoaren zokoetan
hobiraturik.

Hamar hanketatik zortzi
berde,
berrogeietatik berrogei
biluztasuna bezain koloregabe.

ZIURTASUNA

Egiok galde pistolari
zenbat bala gelditzen zaizkion
errekamaran.

Egiok galde gizakiari
zenbat irain gelditzen zaizkion
burmuinean.

Hago seguru
pistolak diala
lehenago erantzunen.

NESKA GAIZTOARI GORAZARRE

*Good girls go to heaven,
bad girls go everywhere*

MAE WEST

Han-hemenka dabil hotsa
neska onak zerura doazela
eta gaiztoak edonora,
eta hurbil zauzkat
kale-paretak hornitzen dituzunean
han-hemenka barreiatzen duzun ukabil-mezuaz,
etsi-etsian eusten diozunean
erloju-orratzen kontra
ibiltzeari,
eta balde bete kola daramazu eskuinean
eta brotxa ezkerrean,
eta besapeko kartelak pitean-pitean erori,
eta inork lagundu ez,
eta erabili behar izan duzu
Andorran erositako espraia
neska gaiztoak

edonora ez baina
galbidera,
infernura
doazela
sinetsarazi nahi izan dizun
hipopotamo pistoladunaren aurka.

KONFORMAGAITZAK

Oskolaren erdia eskatu zion
bareak intxaurrari
barraskilotu nahian.

Barraskiloa
askazia aurrera ateratzeko
night-club batean ari da
striptease-dantzetan,
baretuko deneko
egun zoriontsuaren aiduru.

BIBA GU

Trikitia inportatzeko enpresa bat
erosi du
Floridako inbertsio funts batek.

San Frantziskoko Etcheberry alkateak
Golden Gaten
aurrekua du dantzatu.

Central Parken
Gernikeiko Arboularen
kimu bat
landatu dute.

Chicago Bullseko zaleek
taloa txorizoarekin
irensten dute
United Centerren.

Rockero hilezkorrak
ehun mila ikusleren aurrean
jo du txistua
Born in the Basque Country
abesteaz batera.

Renon eraiki dute
Etxe Zuri berria
Lemoatik ekarritako porlanez.

Berrogeita hamar lauburuk
ordezkatu dituzte
beste hainbeste izar.

Biba gu.

BASQUE CULINARY CENTER

Porrusaldaren errezeta ez dakien orori
moztuko nioke nik sama
errezetaren osagaiak
taloa,
kilo bat txistu,
elastiko zuri-gorri edo txuri-urdin bat
(aukeran),
ehun gramo agur,
berrehun libra aita/ama,
bost tona txapel
direla
ez dakien orori.

Sama moztuko nioke,
bai,
porrusalda porruz egiten dela
aldarrikatzen duen
edozein fariseuri.

SUPER POZIK

Dimisia eman du txepetxak.

Deblauki utzi dio

gutxien espero genuenean

hegazti izateari.

Ez diat berriz ere txepetxeraz egingo,

xuxurlatu omen zuen bere artean,

lumatu egin zen,

gorbatatu egin zuen

propio sorturiko fabrikak.

Txepelerriko alkate dugu

gaur egun.

Hegoak ebaki banizkio

kantatzen du

kamera bat hurbiltzen zaion bakoitzean.

Txepel saria eman diote

gehien espero genuenean.

Super pozik dagoela diotse

elkarrizketa egitera joaten

zaizkionei.

OGIBIDE EGOKIA

Amari

Madrilen

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasi,
masterra Harvarden,
tesia (bikaina cum laude) Cambridgen
eta hara non
topatu duzun
langabezia tasa txikiena duen
eta hobekien ordainduta dagoen
lanbidea:
atsoen bizkartzain izatea.

Felisari zebra-bideak zeharkatzen lagundu
auto-gidari terroristen atzaparretatik ihesi.

Bittoriren telefono-aparatuak hartu
telefonía eta argindar konpainien
azpikontraten azpikontraten azpikontraten
teleoperatzaileen
dei iruzurtiei aurka egiteko.

Gas-errebisioa egiteko aitzakian
Karmenxuren etxean
butanoko tutua zulatzeko labana eskuan
sartu nahi duten
ustezko teknikariei
jaiotza-agiria ere eskatu.

Pakitak kutxazainetik dirua ateratzen duenean
hurbiltzen den edozein oinezko,
adingabe zein adindun,
bortizki uxatu.

Axun metroko bagoian sartzen denean,
bidaiari eseriak,
zeinetariko bakoitzak,
sakelakoaren pantailan
hil edo biziko zerbaiten bila dabilelako itxurak
eginez,

ez baitu eserlekua lagatzeko imintziorik egiten,
bultzaka zutiarazi.

Eta, batez ere,
autobus-geltokiko ilara errespetatu gabe
Hortentsi autobusera igotzerakoan
maniobra trebe hori ekidin nahi duen edonor
errukirik gabe neutralizatu.

BI KANTAUTORE

Bi kantautore
altzairuzko oihalaren beste aldean,
biak ospetsu,
biak maitatuak.

Batak
(demagun
H letrarekin
hasten dela
bere deitura)
Mendebalera egin zuen ihesi
1978an.

Bestea
(demagun
N letrarekin
hasten dela
bere abizena)
herrian geratu.

Urratu zen oihala,
itzuli zen iheslaria,
herritarrek
aireportuan bertan egin zioten
merezitako ongietorria.

Ordutik
hogei urte baino gehiago
igaro dira.
N-ren kontzertuak
jendez mukuru beti,
telebistan agertu ohi da,
beti irribarretsu,
denek maite dute,
lehen adina edo gehiago.

H, ordea,
berak ekoitzitako CDak
bere kontzertu ikuslez urrien ostean
saltzetik bizi da,
ozta-ozta.

Atera berri du kanta bat

Salataria deritzona

zeinean egia biribilak pilatzen diren

txondor erraldoi bat osatuz.

KIOSKOKO SALTZAILEAREN BEGIRADA

Andreak jauzi egin zuen
zaintza bereziko eroetxera
zeraman furgoitik
zaindariei ostiko bana jo
eta kolpe batez atea irekita.

Leher edo zapart
hurbildu kiosko batera
eta egunkari bat erosi zuen
kioskoko saltzailearen begi zurtuei
erreparatu gabe.

Berehala
etorri ziren
telebistetako unitate ibiltariak
eta irrati-esatariak
jazotakoaren berri ematera.

Bertaratu ziren
makina bat jubilatuz,
obren hesietan besoa bermaturik egoteaz
asperturik,
andre hura txalotzera.

Azaldu zen estatuburua ere,
dela errege, dela presidente,
andrea ohoratzeko hitzaldi bat murduskatzera.

Esan gabe doa
egun hartako editoriala
eskaini ziola gertatutakoari
New York Times egunkari digitalak.

AZKEN APALA

LOCUS AMOENUS

*Xabier Amuriza, Nerea Ibarzabal
eta ezezagun bati,
poema honetako ideia gehienak
(guztiak ez esatearren)
oparitzeagatik*

Poza da harri batek uretara botatzean
eragiten duen uhinaldia bezalakoa,
adierazi du adiskide batek.

Atsekabeak, aldiz, gehiago dirau,
esan du jarraian.
Izan ere, ura uhertzearen gisakoa omen.

Bizitza osoan zoriontsu izan nahi baduzu,
jarri baratze bat,
entzun omen du beste lagun batek
bart gauean ikusitako filmean.

Hona hemen zer den zorionaren gailurra,
erantsi du, errukiz ziurrenik,
txera didan eta diodan
ezezagun batek WhatsApp bidez:
baratzean egon bitartean
Karlosen poemak irakurri.

POEMAREN JATORRIA

Higandik,
heure erraien baitaren baitatik
poema sortu zunan
eta poemarekin batera
Hitza,
inoiz ahoskatu gabeko Hitza,
hi baino lehen
besarkatu ditudanena baino
bortitz,
maite,
nireagoa.

TIPEXAREN ONURAK

Poeta sartu da
Madrilgo zaharkin denda batera,
non, urte batzuk lehenago,
Borja Aginagaldek
Perez de Lazarragaren eskuizkribua aurkitu
baitzuen
euskaldunon harridura eta pozerako.

Poetak paper zaharrak arakatu eta
hara non,
ustekabeen
agertu zaion euskaraz idatzitako beste eskuizkribu
bat,
Sardinçarrac izenburua duena,
Cide Hamete Benengeli izeneko norbaitek
izenpetua.

Isil-gordean
eskuizkribua poltsikoratu
eta etxera eraman du.

Mahaira eseririk,
arretaz ezabatu ditu,
tipex magikoari esker,
Hamete eta Benengeli hitzak
eta bai lehenengo berbaren azken letra ere.

Eta eskuizkribua tartekatu
mahai gaineko orri ugarien artean.

SARDINZARRAK

Txapelokerraren
adar okerrak
baino okerragorik
ez dut ikusi nik.

Antoñito el Camborio hilik,
jeneral muskerrak kareztaturik.

Eta orain, hainbat urte iraganik,
mendekuaren orena da jadanik:

Santurtziko ijitoek ez dute saltzen
kai ondoko ferian erlojurik,
sardinzarrak baizik.

GARAI BERRIAK

Garestiagoa ei da
etxe bat zaharberritzea
ezen ez hura eraitsi
eta lurzoru horretan
beste bat
hutsetik hasita,
adreiluz adreilu,
eraikitzea.

Gaitzagoa omen da
behialako poema bat berreraikitzea
ezen ez hura borragomaz ez baina
supr-ari klik eginez ezabatu
eta poema berri bat
hutsetik hasita,
berbaz berba
sortzea.

FUTBOLAREN ONURA POETIKOA

Bi mahai
New Yorkeko Euskal Etxeko
egongela dotorean.

Batean agure bat,
Amorebietakoa (noski),
Sagar Handian hirurogeitaka urte daramatzana,
bertako peña txuri-urdin edo zuri-gorriaren
(aukeran)
Gabonetako loteriaren diru-saria banatzen.

Bestean,
poeta eta editorea,
nor baino nor,
poetaren lana
adostasun magikoaren bidez
duindu guran.

Badatoz saldoka
loteria-saria kobratu nahi dutenak,
aurrena agurearengana,
baina gero beste mahaira,
nor bere iritzia ematera,
hor metonimia bat sartuko nuke,
horko litoteari ez deritzot egoki,
azken bertso-lerro horren aliterazioari ez diot
zentzu handirik ikusten.

Hori bai omenaldia
beren euskal arbaso nekazariei
auzolan xume horren bidez
egindakoa.

VLADIMIR HOLAN ETA BEROKUNTZA

Etxetik hogeita hamabi urtez irten gabe
barreiatu zuen Vladimir Holanek
bere poesia
Europar barrena
Malá Stranatik Iurretaraino.

Holan,
Pragako Kampa irlako
bere etxean giltzapetuta,
irla bateko irla bihurturik,
utopiaz etsirik,
goiko pisuko bizilagun
Jan Werich idazle handi
baina atzerrian ezezagunarekin
berokuntza dela eta ez dela
beti haserre,
beti uzkur.

Holan nor izan ote zen ez badakizu,
irakurle maitea,
ez arduratu,
teknologia eskura baituzu
gabezia hori konpontzeko.

Poemon maila intelektualala igo nahian
ekarri dut Holan jauna hona,
baina ez dut erremediorik:
bere poesiaz jardun beharrean,
bere poemaren bat
nahita edo nahi gabe
plagiatu ordez,
Werichekin berokuntzagatik
izan ohi zituen liskarrak aipatu ditut
ustezko poema honetan.

Esker ona heldu zait
haren bigarren hilobitik.

PERPAUS ERLATIBOEN OMENEZ

*La rivière où quelqu'un se jette
L'hôpital où quelqu'un est mort*

JACQUES PRÉVERT

Erakusleihora inoiz iritsiko ez den liburua
Kanpamentu basean ahaztuta geratu zen bandera
Bermea iraungi ondoko egunean matxuratu zen
 telefonoa
Goiko bizilagunak enpatiarako mikrotxipa galdu
 zuen eguna
Izpiritu maltzurrik uxatu ez zuen eguzki-lorea
Zubitik saltatzea eragotzi ez zizun pilula

INTERTESTUALITATEA

Pretty Woman

defendituko dut.

Haren gaitzesleen kontra,

sikatearen kontra,

lukurreriaren kontra,

justiziaren kontra,

defenditu

eginen dut

Pretty Woman.

Galduko ditut

aziendak,

soloak,

pinudiak;

galduko ditut

korrituak,

errentak,

interesak,

baina Pretty Woman defendituko dut.

(H)armak kenduko dizkidate,

eta eskuarekin defendituko dut

Pretty Woman;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut

Pretty Woman;
besorik gabe,
sorbald(ar)ik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
Pretty Woman.

Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina Pretty Womanek
iraunen du
zutik.

BALDINTZAPEKO PROMESA

Sartu zara Euskal Herriko liburu-denda honetan,
abiatu zara euskal poesiaren sailera,
asmo hori buruan
zeharkatu behar izan duzu lokal osoa,
bukaeraraino,
azken zokondoraino,
eta han
Harri eta Herri
eta tropelekoak
hautsa pilatzen dauden apalategiko
azken-azken apaletik
liburu hau hartu, zabaldu
eta poema honekin egin duzu topo,
zeinean aitor dizudan
maite zaitudala,
zuregatik emaztea eta alaba uzteko prest
nengokeela
baldin eta egingo bazenu
poema liburu hau erosteko
keinu heroikoa.